



KARDIOBERTSIO ELEKTRIKOARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

Zertan datza proba?

Kardiobertsio elektrikoa toraxaren gainean deskarga elektriko bat ematean datza, alterazio zehatz batzuetan bihotzaren erritmoa normalizatzen saiatzeko.

Proba sedazio sakona erabiliz egiten da (oso erlaxatuta egongo zara, ia lo), eman beharreko deskarga elektrikoa desatsegina izan ez dadin, eta anestesioologo batek baloratuko du.

Tratamendu hori egiteko, ordu batzuetan ospitaleratuta egon beharko zara.

Nola prestatu behar dut probarako?

Beharrezkoa da proba baino gutxienez 6 ordu lehenago ezer ez jatea eta ez edatea. Gosariko ohiko medikazioa har dezakezu, ur pixka bat edanez.

GARRANTZITSUA DA tratamendu antikoagulatzailea (tronboak edo koaguluak sortzea saihesten duen sendagaia) ohiko dosian hartzea.

Diabetesa baduzu, bete jarraibide hauek:

- Aurreko gauean hartu zure ohiko medikazioa.
- Prozeduraren egunean ez hartu diabetesaren aurkako pilularik gosarian.
- Ez jarri INTSULINA AZKARRIK prozedura baino lehen.
- Goizean insulina erabiltzen baduzu, prozeduraren ONDOREN jarri.

Hortzordeak eta/edo audifonoak badituzu, kendu egin beharko dituzu harrera-solairuan sartzen zaren unean.

Oso komenigarria da probaren egunean lagunduta joatea.

Nora jo behar dut ebakuntzaren egunean?

Joan zaitez Txagorritxuko Ospitaleko onarpen-zerbitzura. Beheko solairuan dago, sarreraren ondoan.

Handik, harrera-unitatera lagunduko dizute.

Nola egingo didate proba?

Erizainak zainetako bide bat jarriko dizu besoan, prozedurak irauten duen bitartean sedatuta egoteko, aukera emango dizun medikazioa emateko.

Gorputza gerritik gora agerian duzula ohatilan etzango zara, eta pegatina batzuk (elektrodoak) jarriko zaizkizu proba osoan elektrokardiograma ikusteko, baita tentsio arteriala hartzeko mahuka bat eta oxigeno-maila neurtzeko atzamarrean saturimetro bat ere.

Probaren gutxi gorabeherako iraupena aldakorra da, 10-20 minutukoa.





Zer egin behar dut probaren ondoren?

Eguneko Ospitale Medikoko boxean egongo zara, sedazioaren ondoren zure onera etorri arte.

Ez da komeni miaketaren ondorengo 2-4 orduetan gidatzea.

Ezin izango duzu jan, proba amaitzen denetik 2 ordu igaro arte.

Egun horretan ezingo duzu gidatu, makina arriskutsuak erabili edo erabaki garrantzitsurik hartu.